

# Western Basque Festival

## 1959: Mendebaldeaz kontatu ez zigutena

Urte hartan gertatu zen. Ekainaren 6an eta 7an antolatu zuten aurreneko aldiz *Western Basque Festival* jaialdia Nevadako (AEB) Sparks hirian. Ia berrogeita hamar urte pasa behar izan dira kazetari batek han gertatutakoak ikertzeko. Miel A. Elustondo (Azpeitia, Gipuzkoa, 1958) ARGIAko kolaboratzaileak egin du. Jaialdiaren izen bereko liburua kaleratu zuen urrian Susa argitaletxearen eskutik.

GORKA BEREZIARTUA

**PROMESEN HIRIA** esaten diote Sparks. Galde-rena ere izan zen 1959ko urte hasieran. Mahaian bilduta isilik, Peter Echeverria, Robert eta John Laxalt anaiak, Peter Supera, John Micheo, Martin Esain eta John Ascuaga, euskalduna izateak zer arraio esan nahi zuen erantzun ezinean. Hasiera horrekin inork gutxik sinetsiko zuen sei hilabeteren buruan antolatzeoak ziren jaialdian 5.000 euskaldun baino gehiago elkartzea lortuko zutenik.

Artaldea maneiatzeko ez ziren artzain makalak elkartu: Peter Echeverria Nevadako senatari zenuen ordurako; Robert Laxalt bi urte lehenago *Sweet promised land* nobelarekin Ipar Amerika osoan famatua; gainontzeko mahaikideak estatuan estatuko euskal komunitatearen ordezkari nabarmenak.

Miel A. Elustondok sakonean ikertu du jaialdiaren prestakuntza lana. Norik zer, non eta noiz egin zuen; nortzuek, norekin eta nola hitz egin zuten festa handia aurrera eraman ahal izateko. 1992an izan zuen aurreneko aldiz jaial-



Espainiako bandera frankista *Western Basque Festival* jaialdian

diaren berri. Duela hamabost urtetik Amerikara joan jinean ibili da. Batean irakurri, bestean entzun, “seinale guztiak jaialdi hartara zuzentzen nindutela sentitu nuen arte”.

### Kasualitatea? Ez.

Jaialdia antolatzea Dick eta Flora Graves senar-emazteen ideia izan zen, bigarrenarena batez ere. Gipuzkoar baten alaba zen Flora Agirre, Dick Graves kasino jabearekin Sparksera ezkondu zenean hartu zuen abizen ingelesa.

Zer dela eta antolatu zuten jaialdia baina? Elustondoren ustez festa handi bat egitea besterik ez zuten buruan izan, ordura arte egin ez bezalakoa. Ibaiak hori baino lur gehiago harrotu zuen ordea. AEBetan jaioetako euskal amerikar gazteei beren erroak ezagutzeko parada eman zien. Ordura arte *black basquo* izandakoek norbait bazirela erakutsi zieten ingurukoei.

Ez zen kasualitatea. Momentua eta lekua egokiak ziren. Errekatik ibaira: 1950eko hamarkadaren bukaerak AEBetako gutxiengo etnikoen piztea ekarri zuen. Euskaldunek beren buruen kontzientzia hartzea korrante handiaren adar bat baino ez zen izan. Hamarkada hartan gertatu zen: Rosa Parks emakume beltza autobusean eserita zihoan eta kentzeko agindu zion gizon zuritari ezetz esaten ausartu zen. Martin Luther King, eskubide zibilen aldeko mugimendua... Elustondok dienez beltzen mugimenduak gainerako etniak mugitzen lagundu zuen, modu apalagoan izan bazen ere.

### Uriarte, Areilza eta Khrustxev

Gonbidatu ugari izan zuen jaialdiak. Castor Uriarte Euskaltzaindiaren ordezkari modura Sparksen izan zen. Bere alaba Itziar berarekin, ingelesa zekiela eta aitari laguntzera. Elustondok harekin izandako solasaldi bizia jaso du liburuan.

Han izan zen Jose Maria Areilza ere. Francoren estatu kolpearen ondoren Bilboko alkate izandako gizona 1959an Espainiako enbaxadore zen AEBetan. Ez zen 1937an bezala Bilbo odoletan libratu izanaz jardun jaialdian. Urteak ez ziren alferrik joan.

Baina, agintarien omenezko afaria antolatu dute jaialdiaren lehen egunean, eta Areilzak nor den nagusi erakutsi nahi. Ikurrina dago Nugget kasinoan jarrita, AEBetako, Espainiako eta Frantziako banderekin batera. Areilzak legez kanpoko delat hura, kentzeko. Eta kendu egin zuten, Francoren enbaxadoreak kasinotik alde egin arte.

Areilzak ikurrinari jarritako muturraren aldean, askoz



Goiko argazkian Peter Echeverria festibaleko antolatzaileetako bat mikrofonotik hizketan.

Momentu eta leku egokian ospatu zen: 1950eko hamarkadaren bukaerak AEBetako gutxiengo etnikoen piztea ekarri zuen

gozoagoak izan ziren Castor Uriarteren hitzaldian entzundakoak: “*Euskalduna*-k euskera dabena esan nai dau, eta *Euskalerrria*, euskera egiten dauan erria. Orregaitik, zuek emen euskera egiten badozue, Euskalerrrian zagozie”.

Izan zen noski, gonbidatuta egon eta azaltzerik izan ez zuenik. Baliteke Nikita Khrustxev Sobietar presidentea horien artean izatea. Urte hartan gertatu zen: Khrustxev Iowa bisitatzeraz joan zen, Garst senar-emazteen etxaldea zehazki. Presidente izan aurretik ezagutu zituen Garsarrak Krustxev, SESBera arto hibridoa saltzera joan zirenean, 1955ean. Lau urte beranduago eta presidente kargua bere gain hartuta Iowako artasoro batean azaldu zen. Elustondok dienez *Western Basque Festival* jaialdiko antolatzaileek era askotako agintariak gonbidatu zituzten, eta artxihoan ageri denez baita Khrustxev bera ere.

### Mundua 1950eko hamarkadaren hondarrean

Liburua ez da, dena dela AEBetan gertatutakora mugatzen. Jaialdia liburuaren abiapuntua besterik ez da. Hasi Sparksen egiten da, baina bidean Rif-eko amazightarrek garai hartan jasan zuten errepresioa ikusiko du irakurleak, Omar Al Abdallaouj-en larrutik; Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* kari, artean *Yakin* izena zuen aldizkarian sortutako eztabaidaren nondik norakoak; Frantziako Tourrean Marcel Quechille zalgiztarrak (Zuberoa) 59an irabazitako etapa. Baita gaur arteko arrastoa utzi duten beste hainbat gertakari ere.

Izen eta izan ugari, garai batek eta munduari begiratzeko moduak elkartuta. *Western Basque Festival*-ak funtzionatu zuela uste du Elustondok, bi aldiz funtzionatu ere: batetik urte hartan baino ez zelako egin, eta bestetik 1964an Elko-n (Nevada) antzeko beste festibala antolatzeko bidea urratu zuelako. Baina dena ez da lore eta ezti. Elustondoren ustez gaur egun AEBetako euskal klub askoren egiteko nagusia udako euskal jaia antolatzea da, eta hori ez da nahikoa euskal nortasunari eusteko, ezta euskararen erabilera bultzatzeko ere. ■

